



A. A. T
(Altzari Adimendu Teknologikoak)



Ixone Bergado, Xabier Cortés, Jon Bilbao eta Luken Bilbao.



AURKIBIDEA


DESKRIBAPENA:	3
ENPRESARI BURUZKO INFORMAZIOA:	3
LANAREN BANAKETA:	4
ORGANIGRAMA:	5
AMIA	5
GJH-ren negozio ideiak:	6





DESKRIBAPENA:

Arropa aukeratzea askotan arazo bat da, batez ere goizetan. Altzari honekin arazo hori desagertuko da. Asmakizun honen zeregina klimaren arabera, zer arropa jantzi behar duzun aukeratzeko dizu. Armairu hau adimenduna da zure arropa ataletan antolatzeko programatuta baitago. Horrela, hotz egiten duenean neguko atala hautatu besterik ez duzu egin behar eta armairuak automatikoki aukeratuko du zure arropa; Bestetik, beroa egiten duenean berdina gertatuko litzateke.



ENPRESARI BURUZKO INFORMAZIOA:

Altzari hau, enpresa kooperatibo honetan egin dago eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen da. Langileen artean emakumeak zein gizonak daude; zehatzagoak izateko, 13 emakume eta 15 gizon. Altzaria egitea posiblea izateko lana banandu egiten da zereginetan. Batzuk altzariaren egiturari ari dira, beste batzuk, honen sisteman, hau da, altzariaren atal informatikoetan, eta beste batzuk, altzariaren salmentetan kalkuluak egiten. Bai gizonei zein emakumei garrantzia berdina ematen zaie haien generoa ez delako kontuan hartzen baizik eta haien lana eta trebetasunak.




LANAREN BANAKETA:

Xabier Cortés	Ekoizpeneko zuzendaria	Xabi enpresan langileak erakundearen alderdi teknikoarekin integratzeaz arduratzen da. Langileen lanak planifikatzen ditu, enpresan errendimendu-mailarik onenak lortzeko eta, beraz, produktibitate-maila handiagoa lortzeko.
Jon Bilbao	Marketin-burua	Jonek marketin-politikak diseinatzen eta sortzen ditu gure enpresan. Bezeroen lehentasunak eta kidetasunak ikertu (eta iragarri) behar ditu, enpresaren produktu edo zerbitzuetarako merkatu egokienak identifikatzeko.
Ixone Bergado	Merkaturatzeko zuzendaria	Ixonek gure enpresa planifikatzen, zuzentzen eta kordinatzen du. Eginkizun nagusiak hauek dira: salmenten egoeran eta merkatuaren ebaluazioan oinarritutako salmenta eta merkaturatze programa bereziak planifikatzea eta antolatzea.
Luken Bilbao	Salmenta-burua	Lukenek produktuak edo zerbitzuak saltzen dituzten enpresetako salmenta-taldeen eta/edo saltzaileen lana planifikatu eta gainbegiratzen dute. Eginkizun zehatzen artean, honako hauek nabarmentzen dira: salmenta-langileak kontratatu eta prestatzea.



ORGANIGRAMA:



AMIA

<p>AUKERAK</p> <ul style="list-style-type: none">- Nahiko altzari ekonomikoa da eta aurrekontu guztietarako eskuragarri dago.- Gure enpresa da fabrikatzen duen bakarra	<p>MEHATXUAK</p> <ul style="list-style-type: none">- Ideia berri honek lehiakide berriak sortu ditu.- Jendeak armairu zaharrak botatzen ari dira zabor gehiago sortuz.
<p>INDARGUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none">- Elektrizitatea kantitate txikietan bakarrik kontsumitzen duen armairua da.- Ingurugiroa kontuan hartzen duen altzaria da eta ez dago material kaltegarriaz eginda; hala nola, plastikoa.	<p>AHULEZIAK</p> <ul style="list-style-type: none">- Teknologia berritzailearekin sortutako armairua da, beraz, oraindik ez daude salgai asko.- Armairua eraikitzeko erabiltzen diren materialak oso arraroak eta garestiak dira.



GJH-ren negozio ideiak:



Gure enpresak fabrikatzen duen armairua GJH kontuan hartuta sortzen da; horien artean, gure enpresan nabarmenenak 7, 8 eta 9 zenbakiak dira. Hasteko, 7. zenbakiarekin bat gatoz (energia merkea eta kutsakorra ez dena) izan ere, lehen esan dugunez, altzari hau kutsatzen ez duen materialak erabiliz sortzen da energia elektrikoa erabiltzen duelako. Bestalde, 8. zenbakia ere betetzen dugu (lan duina eta hazkunde ekonomikoa), ideia berri honek merkatua zabaltzen duten lehiakide berriak garatu dituelako; bestalde, kontuan izan behar da produktu honek sortzen dituen irabaziak oso handiak direla. Azkenik, 9. zenbakia betetzen dugu (industria, berrikuntza eta azpiegitura), armairu hau nerabeen zein adinekoen bizitza errazteko prest dagoen zerbait berritzailea baita.